




Lectura fácil

Parte hartzeko Batzorderako Hauteskundeak



**Dibertsitate funtzionala duten pertsonen
Arretarako Zentroen Oinarrizko Estatutua**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



© Lectura fácil Europa
Logo: Inclusion Europe
Más información en:
www.easy-to-read.eu

Araba, 2021

“Dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko Egoitza Arretako Zentroen eta Zentro Okupazionalen Oinarrizko Estatutua “ren eranskinaren (Parte hartzeko batzordeko ordezkariak hautatzeko hauteskunde araudia) egokitzapena erraz irakurtzeko, irakurketa errazari buruzko UNE 153101:2018 EX arauarekin bat etorriz.

Argitaratzailea

Arabako Foru Aldundia

Erraz irakurtzeko egokitzapena

Irene Vera de la Fuente

Egokitzapenaren balidatzaileak

Saray Guaza Chamorro

Gregorio Cintas Jiménez

Óscar Pueyo González

Testuaren diseinua Irene Vera de la Fuenteren diseinuan oinarritzen da

Aurkibidea

Aurkezpena.....	4
Zer da parte hartzeko batzordea?.....	6
Nor aritzen da batzordean?	6
Nola egiten diren hauteskunde deialdiak.....	7
Zer egin behar den hautagaia izateko.....	10
Bozketa.....	11
Nola zenbatzen diren botoak	13
Nola eratzen den parte hartzeko batzordea	15

Aurkezpena

Arabako Foru Aldundia

Arabako gobernu organoa da

Aldundiak idatzi du **Dibertsitate funtzionala** dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko Arretako Zentroak arautzen dituen Oinarrizko **Estatutua**.

Zentroen estatutuaren helburuak

honako hauek dira:

- **Zentroak** erabiltzen dituzten pertsonen eta haietan ari diren profesionalen eskubideen eta betebeharren berri ematea.
- Azaltzea nola antolatu behar diren **zentroak**.

Arabako Foru Aldundik

erraz irakurtzeko moduko 5 gida

prestatu ditu estatutu hau azaltzeko.

Estatutua

dokumentu ofiziala da, esaten duena nola antolatu behar den zerbitzu edo zentroa eta nola behar duten bertakoek. Hemendik aurrera Zentroen Estatutua esango diogu.

Dibertsitate funtzionala

desgaitasuna esateko beste modu bat da.

Hemendik Aurrera **Zentroak** aipatzen direnean, dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako eguneko zentroezi, zentro okupazionalerazi eta egoitza zentroezi ariko gara

Hona:

- 1. gida: Zentro motak eta beren balioak.
- 2. gida: Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak.
- 3.gida: Zer egin zentro batean apuntatzeko.
- 4.gida: Zer egin zentroan parte hartzeko.
- 5.gida: Parte hartzeko Batzorderako Hauteskundeak.

Hau 5. gida da,
14 plazatik gorako zentroetan parte hartzeko **Batzorderako** Hauteskundeak nola egiten diren azaltzen da.

Zentroan 14 plaza baino gehiago ez badaude, parte hartzeko beste modu batzuk sor ditzake, baina bermatu behar du erabiltzaile guztiek dutela parte hartzeko eskubidea.

Batzordea

erabiltzaileak eta profesionalak bildu ohi diren lan taldea da; zentroko bizitza hobetzeko erabakiak hartzen ditu.

Zer da parte hartzeko batzordea?

Parte Hartzeko **Batzordea**

erabiltzaile

eta profesional batzuek

eratutako lan taldea da.

Zentroko arreta

eta zerbitzuak hobetzeko

erabakiak hartzen ditu.

Hemendik aurrera
Batzordeak aipatzen
denean, Parte
Hartzeko Batzordeaz
ariko gara.

Nor aritzen da batzordean?

Batzordean honako hauek aritzen dira:

- Berezko batzordekideak;
profesionalak izaten dira.
- Batzordekide hautetsiak;
Erabiltzaileak izaten dira.

Berezko batzordekideak

zentroaren ordezkariak dira.

Ez dira hautatzen,

kide finakoak dira.

Esaterako,

zentroko Zuzendaria.

Batzordekide hautetsiak erabiltzaileen **ordezkariak** dira.

Zentroko erabiltzaileek hautatzen dituzte.

Gida honetan azaltzen da nola egiten diren erabiltzaileen **ordezkariak** hautatzeko hauteskundeak.

Hemendik aurrera **ordezkariak** aipatzen direnean, erabiltzaileek batzordean dituzten ordezkariez ariko gara (batzordekide hautetsiak dira).

Nola egiten diren hauteskundeen deialdiak

Bi modutara egin daitezke:

1. Zentro berrietan ez da egoten parte hartzeko batzorderik.

Horregatik, hauteskundeen deialdiak Batzar Orokorrek egiten ditu.

2. Parte Hartzeko Batzordea dagoen zentroetan deialdiak batzordeak berak egiten ditu.

Batera zein bestera,
Batzar Orokorrak erabakitzen
du nortzuk diren Hauteskunde Mahaiko Kideak.

Hauteskunde Mahaian
hiru kide aritzen dira:

- Bi erabiltzaile
(edo haien legezko ordezkariak).
- Talde teknikoko kide bat;
hau Hauteskunde Mahaiko Burua
eta Idazkaria izaten da.

Honek bermatzen du
Hauteskunde Mahaiak
bere egitekoak betetzen dituela.

Hauteskunde Mahaiko kideek
honako egiteko hauek dauzkate:

- Ziurtatzea hauteskundeetan
hauteskundeetako araudia betetzen dela.
- Hauteskundeetara aurkezten diren
pertsona guztiek behar diren baldintzak
betetzen dituzten egiaztatzea.

Talde teknikoan

aritzen diren
profesionalek
erabakiak hartzen
dituzte zentroaren
jardunaz eta
erabiltzaileen
arretaz. Zuzendaria
ez da talde honetan
aritzen. Honako
hauek izaten dira,
besteak beste:
psikologoa eta
pedagogoa.

Hauteskundeetako araudiak

hauteskundeak nola
egin behar diren
ezartzen du.

- **Hautagaiak**
proposatu ahal dituzte
- Hauteskundeetan gertatzen diren gorabehera guztien **akta** egitea
- Botoa eman dezaketen pertsonen zerrenda aurkeztea.

Zentroko erabiltzaile guztiek eman dezakete botoa hauteskundeetan; gainera, ordezkari izateko hautagaiak izan daitezke.

Erabiltzaileek zuzenean zen zeharka egin ditzake bi gauza horiek. Hau da, berek zuzenean edo konfiantzazko pertsona baten bitartez eman dezakete botoa, eta berak aurkez daitezte edo beren konfiantzazko pertsona aurkez dezakete.

Hautagaiak ezin dira aritu Hauteskunde Mahaian.

Hautagaia
hauteskundeetara aurkezten den persona da.

Akta bileran gertatutako guztia azaltze den dokumentua da. Adibidez: zenbat pertsona bildu diren, zer gai aztertu den.

Zer egin behar den hautagaia izateko

Erabiltzaileak beren kabuz aurkez daitezke hautagai modura edo Hauteskunde Mahaiko kide batek proposatu ahal ditu.

Batera zein bestera,

hautagaitz

Hauteskunde Mahaiari aurkeztu behar zaio.

Hauteskunde Mahaia eratzen denetik 7 egun daude hautagaitzak aurkezteko.

Epealdi hori amaitutakoan

Hauteskunde Mahaiak 24 ordu dauzka hautagaitza guztiak aztertzeko eta hautagaien behin betiko zerrenda iragarkien ohoan ipintzeko.

Gutxienez

ordezkari bat egon behar da 20 erabiltzaileko.

Hau da, zentro batean 100 plaza badaude, erabiltzaileen 5 ordezkari egon behar dira gutxienez.

Hautagaitz

hauteskunde batzuetan hautagai izateko egin beharreko izapidea da.

Hautagaien kopurua
zentroan egon behar diren
erabiltzaileen ordezkarien
kopuru bera bada,
ez dago bozkatu beharrik.

Hautagaiak
ordezkari bihurtzen dira berez.

Hautagaiak
ordezkariak baino gehiago
izanez gero,
bozkatu egin behar da.

Bozketa

Hautagaien
behin betiko zerrenda aurkezten denetik
bozketa egunera arte
ezin dira pasatu 20 egun baino gehiago.

Bozketa zentroaren barruan egin behar da.

Erabiltzaileek beren kabuz eman dezakete botoa
edo konfiantzazko pertsona batekin
joan daitezke.

Hauteskunde Mahaiak hautesle
bakoitzaren izena eta datuak egiaztatuko ditu.

Bozketa orrian
hautagai guztien izenak
agerturko dira.
Bakoitzak
lauki hutsa du ondoan.

Inork ezer ikusi gabe,
gurutze bat egin behar da
norberaren gustuko hautagaien
ondoko laukietan.

Gero bozketa orria gutunazal batean sartu
eta Hauteskunde Mahaiari
eman behar zaio.

Zentroan zenbat ordezkari,
horrenbeste hautagai
markatu daitezke gehienez.

Gutxiago ere markatu daitezke.

Ordezkari baino hautagai gehiago
markatuz gero,
Hauteskunde Mahaiak bozketa orria
ezereztatuko du.

Halaber, orrian informazio
okerra idatziz gero,
botoa ez da baliozkoa izango.

Adibidez: zerbait marraztu,
zerbait ezabatu
edo zerbait idatzi.

Bozketa orriak **anonimoak**
izan behar da;
beraz, ezin da agertu
informazio bereizgarririk.

Anonimoak esan
nahi du ezin dela
jakin norena den
bozketa orria

Nola zenbatzen diren botoak

Erabiltzaile guztiek
botoa eman ondoren
zenbaketa
hasiko da.

Erabiltzaile eta profesional guztiek
ikus dezakete
nola zenbatzen diren botoak.

Hauteskunde Mahaiko Buruak
banan-banan irekiko ditu gutunazalak
eta ozen irakurriko ditu
hautatutako pertsonen izenak.

Orri bateko izenak
irakurri ondoren

Mahaiko beste kideei
erakutsiko die.

Hauteskude Mahaiak orri bat
edukiko prest
hautagai bakoitzeko
eta bertan apuntatuko dira
jasotzen dituen botoak.

Zenbaketa amaitutakoan
baliteke hautagai batzuek
boto kopuru bera edukitzea.
Halakoetan arau bereziak aplikatuko
nor den hautetsia ebazteko.

Honako hauek dira:

- Hautagai batek
zuzenean ahal badu jardun
eta besteak zeharka baino ez,
zuzenean jardun ahal duena
izango da hautetsia.
- Bi hautagaiek
zuzenean ahal badute jardun
edo biek jardun behar badute zeharka,
zentroan denbora luzeena eman duena
izango da hautetsia.

Gero Mahaiburuak
ordezkarien
behin betiko zerrenda
irakurriko du.

Idazkariak
bozketaren akta
egingo du.
Aktaren hiru kopiak
egin behar dira:

- Kopia zentro zuzendariak gordeko du.
- Kopia zentroko iragarki oholean ipiniko da.
- Kopia **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera** bidaliko da.

**Gizarte
Ongizaterako
Foru Erakundea**
Arabako Foru
Aldundiaren
organikoa da;
mendekotasuna
edo dibertsitate
funtzionala duten
pertsontzako
zerbitzuak
kudeatzen ditu.

Nola eratzten den Parte Hartzeko Batzordea

Bozketatik 5 egun igarotakoan
Batzordea eratuko da.

Erabiltzaileen ordezkariak
bozketa sekretua egingo dute
Batzordeburua hautatzeko beren artean.


Batzordeko Idazkaria
talde teknikoko kidea izango da.
Berak egingo du bileraren akta.

Aktan adieraziko da
nor den Batzordeburu berria
eta nor den Idazkari berria.

Horrela modu ofizialean
agertuko da
Zentroan badagoela
Parte Hartzeko Batzordea.

Batzordeko kideren batek
postua utzi nahi badu,
edo zerbaitengatik utzi behar du,
batzordeak haren ordezkoa
hautatuko du.

Hautatuak postua onartzen badu,
batzordekidea izango da
hurrengo hauteskundeak
egin arte.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava